

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2025eko martxoaren 29tik apirilaren 4rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2025/04/03

- **LANEKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK.** 2025eko martxoaren 24ko Ebazpena, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baitira arte grafikoak, paperezko manipulatuak, kartoizko manipulatuak, editorialak eta industria osagarrien arloko estatuko hitzarmen kolektiboko 2025eko soldata-terminoak. **6771 xedapena- 3 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2025/03/31

- **EUSKO JAURLARITZA (EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA).** Arabako eraikuntza eta obra publikoetarako hitzarmena. **927 xedapena- 54 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2025/03/31

- **INDUSTRIA ETA TURISMO MINISTERIOA. Presako neurriak.** ITU/306/2025 Agindua, martxoaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen baita 8/2024 Errege Lege Dekretua, azaroaren 28koa. Dekretu horren bidez, premiazko neurri osagarriak hartzen dira goi-geruzetako depresio isolatuak (GOIDI) 2024ko urriaren 28a eta azaroaren 4a bitartean zenbait udalerritan eragindako kalteei berehala erantzuteko, haiek berreraikitze eta berriz indartzeko plana bultzatzeko. **6377 xedapena- 6 or.**

2025/04/01

- **OGASUN MINISTERIOA. Zerga-bilketa.** Erakunde laguntzaileak. Honen akats-zuzenketa: HAC/241/2025 Agindua, martxoaren 10ekoa. Agindu horren bidez, honako hauek aldatzen dira: EHA/2027/2007 Agindua, ekainaren 28koa, partzialki garatzen duena uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretua, zeinaren bidez Diru Bilketako Erregelamendu Orokorra onetsi baitzen Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren diru-

bilketa kudeatzen laguntzeko zerbitzua ematen duten kreditu-entitateei dagokienez; EHA/1658/2009 Agindua, ekainaren 12koa, prozedura eta baldintzak ezartzen dituena zenbait zorren ordainketa helbideratzeko Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren diru-bilketa kudeatzen laguntzeko zerbitzua ematen duten kreditu-entitateen bidez; eta 1998ko ekainaren 4ko Agindua, Ogasun Publikoaren eskubideak diren tasak biltzeko kudeaketaren zenbait alderdi arautzen dituena. **6490 xedapena- 1 or.**

- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Nazioarteko babesa eskaintzeko harrera-sistema.** ISM/309/2025 Agindua, martxoaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen baita uztailaren 19ko ISM/680/2022 Agindua, ekintza kontzertatuaren bidezko nazioarteko babeserako harrera-sistemaren kudeaketa garatzen duena. **6491 xedapena- 3 or.**

2025/04/02

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Elikagai-xahutzea.** 1/2025 Legea, apirilaren 1ekoa, elikagai-galeraren eta -xahutzearen prebentziorakoa. **6597 xedapena- 44 or.**
- **OGASUN MINISTERIOA. Zergak.** 252/2025 Errege Dekretua, apirilaren 1ekoa, Zerga Osagarriaren Erregelamendua onartzen duena, talde multinazionalentzat eta estatuko talde handientzat gutxieneko zergapetze-maila global bat bermatzeko. **6598 xedapena- 27 or.**
- **OGASUN MINISTERIOA. Zergak. Zerga-prozedurak.** 253/2025 Errege Dekretua, apirilaren 1ekoa, zeinaren bidez bi hauek aldatzen baitira, informazio-betebeharrak betetzeari lotuta: batetik, 439/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, martxoaren 30ekoa, eta, bestetik, zergak kudeatu eta ikuskatzeko eta zergak aplikatzeko prozeduren arau komunak garatzeko jarduketei eta prozedurei buruzko Erregelamendu Orokorra, uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsia. **6599 xedapena- 9 or.**
- **OGASUN MINISTERIOA. Fakturazio-prozesuak.** 254/2025 Errege Dekretua, apirilaren 1ekoa, abenduaren 5eko 1007/2023 Errege Dekretua aldatzen duena. Azken horren bidez, enpresari eta profesionalen fakturazio-prozesuetarako sistema eta programa informatiko edo elektronikoen bete beharreko eskakizunak eta fakturazio-erregistroen formatuen estandarizazioa ezartzen dituen araudia onesten da. **6600 xedapena- 5 or.**
- **BARNE MINISTERIOA. Nortasun Agiri Nazionala.** 255/2025 Errege Dekretua, apirilaren 1ekoa, Nortasun Agiri Nazionala arautzen duena. **6601 xedapena- 12 or.**

2025/04/04

- **BARNE MINISTERIOA. Armak. Erregelamendua.** INT/330/2025 Agindua, apirilaren 2koa, urtarrilaren 29ko 137/1993 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Armen Erregelamenduaren 1. jarraibide tekniko osagarria aldatzen duena («Galerien eta tiro-eremuen ezaugarriak eta haietako segurtasun-neurriak»). 6796 xedapena- 9 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2025/04/01

- **OSASUN SAILA.** 65/2025 DEKRETUA, martxoaren 18koa, farmazia-bulegoetako giza nutrizioaren eta dietetikaren atalari buruzkoa. 1434 xedapena- 6 or.

2025/04/03

- **LEHENDAKARITZA.** 1/2025 LEGEA, martxoaren 20koa, Ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legea aldatzekoa. 1473 xedapena- 2 or.

2025/04/04

- **LEHENDAKARITZA.** 1/2025 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasen eta Prezio Publikoen Legearen testu bategina onartzekoa. 1493 xedapena- 120 or.

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2025/04/03

- **Bizkaiko Batzar Nagusiak.** Martiaren 19ko 1/2025 FORU ARAUA, Bizkaiko bizikleta-bide foralei buruzkoa. I 378 xedapena- 54 or.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO